

DONOSTIA KIROLAK DIRU-LAGUNTZA BAT GALDU DUELA ETA, MOZIOA

Josu Mirena Ruizek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, honako MOZIO hau aurkezten du, Donostia Kirolak diru-laguntza bat galdu duela-eta, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean maiatzaren 15ean egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Apirilean, Donostia Kiroleko Artezkaritza Kontseiluaren bileran, 2016ko ekitaldiaren kitapenari buruzko txostena aurkeztu ziguten. Bertan, inbertsioetarako Foru Aldundiaren 66.376,73 euroko onartutako diru-laguntza galdu dela adierazten da. Diru-laguntza hau aurreko Udal Gobernuak lortu zuen 2015ean, Atano III.ean hobekuntzak egiteko, eta hauek 2015-2016ko epean egin behar ziren. Hobekuntzak ez dira aurreikusitako epean egin, ordea. Zinegotzi-ordezkariak bere erantzukizunei uko egin gabe, sailaren lan zama handia argudiatu zuen.

Honegatik guztiarengatik, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

MOZIOA

1-Donostiako Udalbatzak eskatzen dio Donostia Kirolakeko zinegotzi-ordezkariari, diru-laguntzak direla eta, barne protokolo bat onar dezan aurreikuspenak ez betetzeagatik beste erakunde batzuen diru-laguntzarik gal ez dadin.

Donostian 2017ko maiatzaren 19ean

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia